

BALIO PROPOSAMENA:

Inoiz arazoak izan dituzu kartelak irakurtzeko? Bidezkoa iruditzen zaizu kartelek braile hizkuntza ez izatea? Edo kartelak lagungarriak ez izatea (hizkuntza) irakurtzen ez duen beste edozein talderentzat? Inoiz lagundu behar izan duzu behar bereziak dituen norbait kartel zuzenik ez izateagatik?

Gure enpresak behar bereziak dituzten pertsonentzako egokituak ez dauden kartelak aldatzeko sortu izan da. Gure ikastetxan ikusi genuen klase bakoitzean kartel bat zegoela, baina kartel hau oso zahartuta zegoela. Kartel hauek berritzeaz gain kartel hauek hobetzeko pentsatu genuenean, gure arreta deitu zuen kartelak ikusmen arazoak ez duten pertsonentzako zeudela eginda bakarrik. Hori dela eta, pentsatu genuen hauek aldatzeaz gain inklusiboa egin behar genituela edonork irakurri ahal izateko. Kartelean dagoen informazioa brailez jartzen baita, horrela eman ahal ditugun erraztasunik handienak emanaz.

Braillez egindako kartelak eskaintzeak ikusmen-desgaitasuna duten egungo ikasleei mesede egiteaz gain, eskola-komunitate osoan sentsibilizazio-ingurune bat sortzen ere laguntzen du. Ikasle guztiek, ez bakarrik ikusmen-desgaitasuna dutenek, onura izango dute besteen premiez gehiago jabetzen direlako, enpatia eta errespetua sustatuz.

Arrazoi horiek lagungarri izan daitezke erosleek (ikastetxeek, administratzaileek, etab.) zure produktuaren benetako balioa ikus dezaten, ez bakarrik gastu gisa, baizik eta inbertsio gisa, hezkuntzaren kalitatea, inklusioa eta erakundearen irudia hobetzeko.